

Gabon, Olentzero:

Tik-tak, tik-tak... Erlojuaren orratzak atzean dabilzkit harrapatu guran, eta neu ihesean, jirabira etengabe, zirkulu mugatutik ihes egin ezinik, bizitzak noiz esnatuko zain. Gaueroko errepikazko amesgaiztoak errealitatearen eta fikzioaren arteko muga ganduan kokatzen nau.

Tik-tak, tik-tak... Ordulariaren orratzen dantzak loa eragotzita idazten dizut abenduaren 23ko gaueko ordu txikietan, begiak ezin bildurik, pertsianaren zirrikituei darien etxe aurreko parkeko farolen argi motelaren laguntzaz, lerrootan egingo dizudan eskakizuna garaiz iritsiko zaizun esperantzaz. Bai, jakin badakit, ondo jakin ere, lanpetuta zabilzala hurren poztasun-kutxak atondu nahian, eta hein berean dakit ezeren gainera Euskal Herriko etxeetako txikien desio, gurari, apeta edota gutziak lehenetsiko dituzuna. Aitortu behar baitizut, lagun, dagoeneko ez naizela ume. Haurtzaroaren adin-muga zehaztugabea da, eta neuk nire baitan –buruan eta ariman– oraindik dudak umetasun-zantzuak galzorian dira, bizitza irakasbide bilakatuta, logikak, zentzunak eta zuhurtasunak agindutako jokaera gailendu zait-eta, nahiz eta 13 urte bete berri izan.

Esan nezake ume izateari –inoiz izan ote naiz?– utzi niola aspaldi, hain zuzen ere, seinak egin ninduen ama aldendu zitzaigunean. Orduz gero, amaren fruitu txikiaz –Mikelatsez– arduratu behar izan naiz, gau eta egun, aitaren axolagabekeriak derrigortuta. Harrezkero, premiazko dudak maitasuna eskaini liezadakeen magalik ezean, anaiarentzako babespeko bihurtu naiz, haurridearentzako bero-emaile, jaiotzeagatik zor zaion eta inori falta beharko ez litzaiokeen altzo naturalaren ordezkari. Neuk daramat eskolara, neuk prestatzen diot jatekoa, neu aritzen naiz eguraldi txarreko egunetan etxean berarekin olgetan, neuk laguntzen diot etxe aurreko parkera, kasik itzalik sortzen ez duten kale-argien pean, han egiten baitu nagusiki anaiak irri, labain kostata egiten duen txirrista zaharrear eta ugerrak hartutako zabu zaratatsuan, dilin-dalan bera, dilindan neu.

Gaur, gutaz erditu zena joan zenetik hiru urtegarrenean, auzokoen arratsaldeko oles inprobisatuak entzun ostean, Mikelats, kopetilun, errezeloz agertu zait Olentzeroren oparirik izango ez ote duen. Izan ere, aurten ez zaizu haren eskaera-gutunik iritsiko, ez duzu anaia txikiaren desioen berri izango; eta

nago, aurten ez eze, hemendik aurrera ere Mikelatsek ez dizula osterera ere idatziko. Neroni ere abandonatu ninduen orain dela urte batzuk zure etorreragatiko ilusioak. Baina Mikelatsek 6 urte baino ez ditu, eta ez diot zilegi irizten haurtasuna hain txiki galtzeari. Neu naiz, egun, haren erreferente bakarra, haren iparra; nor eta neu, galdu-gordean nabilen hau. Eta, egunerokoan ispilu nauen honen begietan, Mikelatsek ezin du fantasiarik antzeman, irudimena desbideratu baitzitzaidan aspaldi egiazko mundu gordinaren bazter anker eta bihozgabeetara.

Tik-tak, tik-tak... Segundoak, minutuak, orduak, egunak, urteak joan zaizkit, eta haiekin batera, ilusioa, irudimena, gozotasuna eta sinesmena. Egun, sinetsi, soilik sinesten baitut nire aurrean dakusadana.

Tik-tak, tik-tak... Orduak, minutuak, segundoak baino ez dira falta etxe orotan, edo ia orotan, umeak zeuk lagatako opari bilduak biluzten has daitezen. Nirean, ziurrenik, ez da erregalurik izango, ez bada begietatik isurtzen zaizkidan malkoek bustitako hitzok sasoiz heltzen zaizkizulako.

Eskaera bakarra dut zuretzat, Olentzero. Egizu magia behin sikiera! Isiotu etxe honetako subila, eta bere txingarrek berpiztu dezatela gurean inoiz izan zen xalotasuna. Utzidazu zugar sinesten, anaiak nire begi-ninietan ikus zaitzan. Berdin dit kutxarrik ez bada, baina laga era batean edo bestean etxe honetan egon izanaren aztarna. Esna iezaguzu bizigogoa, eta utzi osterera ere ume izaten.

Tik-tak, tik-tak... Nerabezaroa ate joka daukat. Oparitu haurtasuna, aurtengo Gabonetarako baino ez bada ere.

Aspaldiko partez, muxu handia,

Jon